

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Avocadorentzat oso garrantzitsua da bezeroekin dugun erlazioa, horregatik beraiekin harremanetan egoteko hainbat aukera izango ditugu. Bezeroak pozik egotea gure lehentasuna da, horregatik beraiekin kontaktuan jartzeko erraztasunak jarri ditugu.

Lehenik, Instagram kontu bat egin dugu (@avocadoskinbrand), bertan gure produktuak aurkeztuko ditugu (bere prezioarekin, propietateekin...) eta beraien aktualizazioak argitaratuko ditugu. Dendan aldaketak egiterakoan bertan azalduko ditugu eta bezeroak arazoak izaterakoan oso erraz konpondu ahalko genituzke. Gure ustez Instagram oso modu ona, erraza eta eraginkorra da bezero gazteei ailegatzeko.



Enpresaren webgune bat ere izango dugu, Instagram bezala funtzionatuko dugu. Ahuakatearen onura dermatologikoak eta ilearenak, kontsumitzaileek hobeto erabakitzeko. Beste atal bat egongo da non gure produktu guztiak eskainiko ditugu, baina gure web orrialdetik erosi ordez, produktua klikatzean hainbat aukera aterako dira. Agertzen diren denden artean bat aukeratu beharko duzu, aukeratutako dendan klikatzean denda horretara berbiduratako zaizu bertan erosteko. Hau gure webgunearen linka da;



<https://avocadoskinbrand.wixsite.com/my-site>

Bukatzeko metodo tradizional bat ere badugu, posta elektronikoa. Badakigu badagoela jende asko, gaur egun oraindik ez dakiela nola erabili webgune bat edo Instagram kontu bat, horregatik forma errazagoa bilatu dugu. Gure posta elektronikoa avocadoskinbrand@gmail.com da, oso adi gaude bezeroek bidaltzen diguten gauzei, horrela oso harreman ona lortuko dugulako.



Beste aldetik, bezeroa markan integratua egotea lortu nahi dugu, horregatik gure webgunera inskribatzeko aukera dago. Oso erraza da, gure webgunean sartzean atal bat ikusten da non erregistratzea jartzen du, posta elektronikoa idatzi eta pasahitza erabaki behar duzu. Erosleek gure web orrialdean inskribatzean, markaren parte izaten hasten dira, honi esker, produktu berriak, plataformaren berrikuntzak edo promozioak bidaltzeko aukera izango dugu. Aukera hau jartzea erabaki dugu, uste dugulako oso interesgarria dela gure produktuen kontsumitzaileekin dugun harremana hobetzeko.